*QUINTO.- Declarar el apoyo unamme y solidario del Ayuntamiento de Getxo a los enfermos celíacos, familiares, asociaciones y resto de agentes con los que interactúan.*

*SEIGARRENA.- Eritasun zeliakoari buruzko informazioa getxotarrei zabaltzen laguntzen duten jardueren garapena babestea, udalak sustatutakoak, eta dibulgazioari laguntzea urtero maiatzaren 27an ospatzen den Zeliakoen Nazio Egunean, kontzientziazio-, elkarbizitza- eta heziketa-jardueren bitartez.*

*SEXTO.- Favorecer el desarrollo de actividades que impulsen la difusión y divulgación de la enfermedad celíaca a los getxotarras, impulsadas por el propio Ayuntamiento además de fomentar la divulgación el día 27 de mayo de cada año con motivo del Día Nacional del Celíaco con actividades de concienciación, convivencia y educativas.*

*ZAZPIGARRENA.- Establezimendu horiek kanpotik erraz identifikatzen ahalbidetzen duen bereizgarri ofiziala sustatzea.*

*SEPTIMO.- Fomentar el uso del distintivo oficial que permita identificar fácilmente a estos establecimientos desde el exterior.*

*ZORTZIGARRENA.- Getxoko hezkuntza-zentroetako hezkuntza-eskaintzari eritasun zeliakoari buruzko hitzaldiak edota informazio-jardunaldiak gehitzea, batez ere intolerantziak dituzten ume gehiagoko hezkuntza-zentroetan.*

*OCTAVO.- Que se incluya en la Oferta Educativa un ciclo de charlas, conferencias y/o jornadas informativas y divulgativas de la enfermedad celíaca en los centros educativos de Getxo incidiendo en los que cuenten con más niños con intolerancias.*

*BEDERATZIGARRENA.- Gazteria Sailak astero Euskadiko Zeliakoen Elkarteari udal-eraikinaren batean lekua utz diezaiola, esaterako, Billamonten, modu ez iraunkorrean, Getxoko gazteekin informazio-bilerak, hitzaldiak, elkarbizitzak eta bestelako jarduerak antolatzeko, beharrezkoak zaizkionak.*

*NOVENO.- Que el Área de Juventud le ceda un espacio semanal en algún edificio municipal, como por ejemplo Villamonte, no permanente, a la Asociación de Celíacos de Euskadi, para sus reuniones informativas, charlas, convivencias y aquellas actividades que necesiten organizar con jóvenes getxotarras.*

*HAMARGARRENA.- Arestian aipatutako erabaki guztiak biltzen dituen informazio-kanpaina egitea eta komunikabide eta sare sozialen bitartez zabaltzea, zeliako, senide eta elkarte guztiek horien berri izateko, eta diagnostikoari eta pazienteek jan ditzaketen elikagaien normalizazioari laguntzeko jarduerak bultzatzeko."*

*DECIMO.- La difusión mediante una campaña informativa en los medios y redes sociales de los acuerdos anteriormente mencionados para que lleguen a todos los enfermos celíacos, familiares, asociaciones, impulsando acciones relacionadas con la ayuda al diagnóstico y normalización de los alimentos que estos pacientes pueden ingerir."*

Iñaki Gamerok zuzenketa onartzen duela erantzun du.

Iñaki Gamero contesta que admite la enmienda.

Ibon Rodriguezek, EH Bilduren izenean, irakurri egin duen beste transakzio zuzenketa bat aurkeztu du:

Ibon Rodríguez, en nombre de EH Bildu, presenta otra enmienda trasaccional a la que da lectura:

*"Zioa: Zeliakoei laguntzea ez dagokio soilik udalei. Espainiar Estatuko gobernuak zer ikusi handia du gai horretan, bera baita elikagaien BEZ-a ezartzen duena eta bera delako txarto deitutako kopagoa ezarri duena. Aurrekoagatik, Zeliakoei laguntza emateko mozioari hiru puntu gaineratu nahi dizkiogu, hots, Laugarren, Bostgarren eta Seigarren puntuak gehitzea proposatzen dugu eta egun laugarrena den a zazpigarrena bihurtu.*

*Laugarrena: Getxoko Osoko Bilkura espainiar estatuko PP-k gidatzen duen gobernuari zuzentzen zaio egun Zeliakoek kontsumitu behar duten elikagaiek pairatzen duten BEZ murriztu dezan eta egungo % 21 etik % 4ra aldatu dezan. Eskari hau helarazteko Alkateak gutuna igorriko die Mariano Rajoy eta Osasun ministroari batzar honetako akordioa gehituz.*

*Bostgarrena: Getxoko Osoko Bilkurak espalmar estatuko PP-k zuzentzen duen gobernuari eskatzen dio guztiz bidegabea den botiken berrordainketa (gaizki deitutako kopagoa, alegia) berehala ezabatu dezan, botiken gaineko gainordainek beti eragiten dietelako pertsona ahulenei eta zeliakoen tratamenduan ere eragin zuzena duelako. Honen berri emateko Alkatea zuzenduko zaio Mariano Rajoy eta Osasun ministroari gutunez eskaria eginez eta batzar honetako akordioa gehituz.*

*Seigarrena: Zeliakoen kolektiboaz gain, elikaduraren ondoriozko beste edozein intolerantzia pairatzen duten kolektiboek ere neurri hauen onurak jaso ahal izango dituzte."*

Iñaki Gamerok zuzenketa ez duela onartzen erantzun du, ez onartzeko aurkeztu baita, eta ez zaio bidezkoa iruditzen mozioak pertsona zeliakoei buruz hitz egiten duenean. BEZa jaistea

*"Motivo: La ayuda para celiacos no concierne solo a ayuntamientos. El gobierno de España tiene una gran relevancia al respecto, puesto que es ese órgano el que establece el IVA de los alimentos y el responsable de aquello que erróneamente se denomina copago. Por ello, queremos añadir tres puntos a la moción sobre la ayuda para celiacos, es decir, proponemos añadir los puntos Cuarto, Quinto y Sexto, y que el cuarto actual pase a ser séptimo.*

*Cuarto: el Pleno del Ayuntamiento de Getxo se dirige al Gobierno de España, dirigido por el PP, para pedir que reduzca el IVA que se aplica hoy en día a los alimentos para celiacos, de un 21 % a un 4 %. El alcalde remitirá una carta que recoja dicha petición a Mariano Rajoy y al ministro de salud y adjuntará a la misma el acuerdo de este pleno.*

*Quinto: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo se dirige al Gobierno de España, dirigido por el PP, para solicitar que retire de inmediato el copago, puesto que se trata de una medida injusta que afecta a los más débiles y tiene una incidencia directa en los tratamientos de los celiacos. Para dar debida cuenta de todo ello, el alcalde dirigirá por escrito una solicitud a Mariano Rajoy y al ministro de salud y adjuntará a esta última el acuerdo que pronuncie este pleno.*

*Sexto: Que además de los celiacos, aquellos colectivos que padezcan de alguna intolerancia alimentaria puedan beneficiarse también de dichas medidas."*

Iñaki Gamero replica que no admite la enmienda ya que está presentada para ser rechazada y no le parece justo cuando la moción trata de personas celíacas. Manifiesta que la rebaja en el

Senatuak nahiz Europako Batzordeak proposatu dutela adierazi du.

IVA la han planteado tanto en el Senado como en el la Comisión Europea.

Koldo Iturbek esan du EH Bilduk adierazitakoarekin bat datorrela. Ciudadanosi aipatu dio tokiko edozein elkartek eskatu dezakeela lokalak erabiltzea, eta Gazteria Arloak lokalak ez dituela kudeatzen zehaztu du. Aurkako botoa emango dute; izan ere, udala establezimenduei babesa ematen ari zaie alergenoen identifikazioa hobetu dezaten, eta berariazko ikastaroak ere antolatu ditu elikadurari buruzko araudia azaltzeko. Bizkaiko Foru Aldundiari buruz eransten den eskaerari dagokionez, Euskadiko Zeliakoen Elkartearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bat dagoela adierazi du; hitzarmen horren bidez, zeliakoen gainelikadura kostuengatiko diru laguntzak ematen dira, eta bere buruari galdetzen diona da gai honetan udalaren laguntzak zelikoentzat bakarrik izan behar duten edo alergeno guztientzat; izan ere, gai horiek estatuko osasun politikaren gainean gogoeta egiteko balioa behar dute. Espainiako Zeliakoen Elkarteak Espainiako Gobernua kritikatzen duela esan du, Europako beste herrialde batzuen aldean ez baitu batere laguntzen eta, gainera, 375.000 lagunek egindako eskaerari entzungor egin dio; horregatik guztiagatik, PPri mozioa erretira dezala eskatu dio.

Koldo Iturbe indica que comparte lo manifestado por EH Bildu. A Ciudadanos le indica que cualquier asociación local puede solicitar el uso de locales concretando que el área de Juventud no gestiona locales. Votarán en contra ya que el ayuntamiento está dando apoyo a los establecimientos para que mejoren la identificación de alérgenos y ha organizado incluso cursos especificos explicando la normativa sobre alimentación. Respecto a la petición que se incorpora en relación a la Diputación Foral de Bizkaia manifiesta que hay un convenio entre la Asociación de Celiacos de Euskadi y la Diputación Foral de Bizkaia que otorga subvenciones por los costes de sobrealimentación de las personas celiacas y se pregunta si han de existir ayudas municipales exclusivamente en esta cuestión sólo para los celiacos o a todos los alérgenos porque estima que estos temas deben ser objeto de una reflexión de la política sanitaria estatal. Manifiesta que la Asociación Española de Celiacos critica al gobierno de España porque, a diferencia de otros países europeos no ayuda nada y además ha hecho caso omiso a la petición de más de 375.000 personas y por todo ello pide al PP que retire la moción.

Ibon Rodriguezek adierazi du PPk esan duela zuzenketa transakzioa ez onartzeko aurkeztu dela, baina ez dela egia, nahiz eta pentsatzen zuten ez zela onartuko; izan ere, Getxoko PP Madriletik esaten dutenaren mende dago, gai horiek beraien alderdian bertan proposatu beharrean. Ez du ulertzen zergatik eskatu behar zaien

Ibon Rodríguez manifiesta que el PP ha dicho que la enmienda trasaccional se ha presentado para que la rechacen pero que no es cierto aunque estimaban que no iba a ser admitida porque el PP en Getxo está a las órdenes de lo que les digan desde Madrid, en lugar de plantear estas cuestiones dentro de su propio partido. No entiende porque

zeliakoentzako laguntza erakundeen maila guztiei, eta ez estatuari. BEZa % 21etik %4ra jaisteak izango zituen ondorioen datuak eman ditu. PPri gogorarazi dio beste zenbait kasutan ez dutela sentsibilitate bera agertu, eta horren adibide, C hepatitisarekin kaltetutako pertsonak. Amaitzeko, mozioa babestu ala ez, zalantza izan dutela adierazi du, ideiak baloratzen baitira eta ez proposatzen dituen taldea, baina gobernuko taldearen adierazpenak entzun ostean, abstenitu egingo direla.

hay que pedir ayuda para los celiacos a todos los niveles institucionales y no al estado. Da datos de los efectos que tendría reducir el IVA del 21 al 4%. Recuerda al PP que no han demostrado la misma sensibilidad en otros casos y pone de ejemplo los afectados por la hepatitis C. Finaliza indicando que han dudado si apoyar o no la moción porque se valoran las ideas y no al grupo que las propone, pero que tras escuchar las manifestaciones del equipo de gobierno se van a abstener.

Teresa Escalantek EH Bilduren eta EAJ-PNVren adierazpenekin bat datorrela dio. Bizkaiko Foru Aldundiak, minusbaliotasunei lotutako hobarien bidez, kaltetutako kolektiboei laguntzak ematen dizkiela esan du. Mozioa merkatariengan eta ostalariengan oinarritzen da, eta deigarria egiten zaio, urtarrilean ostalariek iturriko ura pitxarretan emateko neurriaren aurka zeudelako, eta orain, berriz, haien jarduerari eragiten dieten beste batzuk proposatzen dituztelako.

Teresa Escalante indica que están de acuerdo con las manifiestaciones de EH Bildu y del PNV. Señala que la Diputación Foral de Bizkaia, a través de bonificaciones asociadas a minusvalías, también se ayuda a colectivos de afectados. La moción se centra en comerciantes y hosteleros y le llama la atención porque en enero se oponían a imponer a los hosteleros la utilización de jarras de agua corriente y ahora plantean otras medidas que afectan a su actividad.

Susana Andollok abstentitu egingo direla esan du, laguntzekin ados izan arren, diru sarrerak ez dituztelako kontuan hartzen; gainera, alergenoen gainean behar besteko legeria dago. Amaitzeko, BEZaren jaitsieraren alde dagoela esan du.

Susana Andollo manifiesta que se van a abastener ya que estando de acuerdo con las ayudas no tienen en cuenta los ingresos económicos y además existe suficiente legislación sobre los alérgenos. Finaliza manifestando su apoyo a la bajada del IVA.

Iñaki Gamerok adierazi du ezjakintasuna ausarta dela, eta ohiko produktuen eta zeliakoentzako produktuen prezioen arteko aldeak jarri ditu adibide modura, haiek guztiak ohiko kontsumorako, eta alderaketa horretan argi ikusten da kostuan zer-nolako diferentzia dagoen. Laguntzak estandarizatutako errentan

Iñaki Gamero indica que el desconocimiento es osado y pone ejemplos de diferencias de precios entre productos normales y productos para celiacos, todos ellos de consumo básico, en los que es evidente la diferencia de coste. Insiste en que las ayudas las plantean en base a la renta estandarizada. Manifiesta conocer los

oinarrituz proposatzen dituztela azpimarratu du. Mozioa aurkeztu zenean emandako ikastaroen berri bazuela esan du, baina gutxi direla eta, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren hitzarmena ezagutzen dutela PPk 2014 eta 2015ean egindako zuzenketaren batetik datorrelako. Mozioa zeliakoen egoera hobetzeko positiboa dela uste du, eta zerga kenkariak proposatzen dituela diru laguntza baten mende ez egoteko.

cursos que se han impartido que se hicieron justo cuando se presentó la moción pero opina que son escasos y además el convenio de la Diputacion Foral de Bizkaia lo conocen porque viene de una enmienda del PP de los años 2014 y 2015. Cree que la moción es positiva para mejorar la situación de los celiacos y plantea las deducciones fiscales para no estar al albur de una subvención.

Teresa Escalantek argitu duenez, zerga kenkariei buruz hitz egin duenean ez da zeliakoez ari, gaixotasun horrek dakartzan hainbat albo-gaixotasunari buruz baizik.

Teresa Escalante aclara que cuando se ha referido a las deducciones impositivas se refiere no a los celiacos sino a las enfermedades que muchas veces llevan aparejadas.

Koldo Iturbek dio harrituta geratu dela erabat diru laguntzaren berri zutela entzutean eta, hala ere, mozioari eusten diotela. Gaixotasunak kaltetutako gaixoekiko elkartasun osoa adierazi du, horregatik ari direla lanean, eta ez du uste udal eskumenekoak direnik; hala, gogora ekarri du PPk lau urtetan kaltetuen eskaerei ez diela kasurik egin eta, beraz, ez dutela logikoa ikusten Getxon jokabide eta eskaera hori izatea.

Koldo Iturbe indica que se queda más perplejo al oir que conocían la subvención y aún así mantienen la moción. Expresa toda su solidaridad con los afectados por la enfermedad y por eso están actuando y no cree que sean de competencia municipal, recordando que el PP en cuatro años ha hecho caso omiso de las peticiones de los afectados por lo que no ve lógica esa actuación y solicitud en Getxo.

Iñaki Gamerok aipatu duenez, PPk Senatuan nahiz Europako Batzordean BEZa jaisteko eskaerak egin ditu jadanik, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako hitzarmena zeliakoen elkarteetarako direla esan du berriro, eta haiek laguntzak kaltetutako pertsona guztientzat izan daitezela azpimarratu dute.

Iñaki Gamero indica que el PP ya ha hecho peticiones en el Senado y en la Comisión Europea para reducir el IVA e insiste en que el convenio con la Diputación Foral de Bizkaia es para las asociaciones de celiacos y ellos insisten en que las ayudas sean para todas las personas afectadas.

Koldo Iturbek erantzun du hitzarmenak berariaz adierazten duela haren zuzkiduraren % 84 elkartekideentzat izango dela, eta % 16 kide ez direnentzat.

Koldo Iturbe replica que el convenio indica expresamente que el 84% de su dotación se destina a los miembros de la asociación y el 16% a los no miembros.

Ibon Rodriguezek hitza hartu eta esan du ez duela ulertzen transakzio zuzenketa zergatik ez duten onartu, Alderdi Popularrak berak emandako argudioak ikusirik.

Ibon Rodríguez interviene para indicar que no entiende porque no han aceptado la enmienda trasaccional vistos los argumentos que ha desarrollado el propio Partido Popular.

Mozioa bozkatu ostean, ez da onartu, aldeko 6 boto (PP, Ciudadanos), aurkako 11 (EAJ-PNV, PSE-EE) eta 8 abstentzio (GUK eta EH Bildu) jaso baititu.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, PP, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 8 abstenciones GUK, EH Bildu.

**136.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KATASTROAREN BERRIKUSPENA ETA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN FORU ARAUAREN PROIEKTUARI ALDAKETAK.**

**136.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/LA REVISIÓN DEL CATASTRO Y CAMBIOS AL PROYECTO DE NORMA FORAL DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.**

Mozioa gai zerrendatik kentzen da.

Se retira la presente moción del orden del día.

**137.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: DISPERTSIO-POLITIKAREN ETA URRUNTZEAREN DESAKTIBAZIOA.**

**137.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/LA DESACTIVACIÓN DE LA POLÍTICA DE DISPERSIÓN Y ALEJAMIENTO.**

Maite Arraiza andreak ondorengo mozioa irakurri du:

Maite Arraiza da lectura a la siguiente moción, indicando que la presentan en nombre de Etxerat:

Dagoeneko 27 urte luze dira espainiar eta frantses gobernuek euskal presoak era sistematiko eta orokor batean bere lurretan zehar dispertsatzeko politikari hasiera eman ziotela.

Son ya 27 largos años desde que los gobiernos español y francés pusieron en marcha de manera sistemática y generalizada la dispersión de Las/os presas/os vascos/as a lo largo del territorio de ambos estados.

Arrazoi politikoei erantzuten dien neurri honek oinazea sortzen dio ez soilik kondena betetzen ari den presoari, baizik eta era zuzen batean eragiten diela senide eta lagunei ere.

Esta medida que obedece a razones políticas, causa sufrimiento no sólo al preso y a la presa que está cumpliendo condena sino que afecta directamente a los familiares y allegados/as. En la

Praktikan beharrezkoa ez den zigor bat da, senideek euren borondatearen kontra egiten dituzten bidaiak dira, baina preso diren euren senideekin komunikatu eta bisita eskubidearen ariketa egiteko soilik egindako bidaiak dira.

práctica es un castigo innecesario, son viajes que los familiares están obligados a hacer en contra de su voluntad, pero realizados sólo con el objetivo de ejercer el derecho a visitar y comunicarse con sus familiares presos.

Gaixo diren presoekin eta adinduekin batera, egoera hau gehien sufritzen dutenak adin txikikoak dira: milaka kilometrori aurre egin behar diete asteburu batean bere gurasoetako bat edo biak bisitatzeko, eskola aste gogor bate ostean, hurrengorako atseden hartzeko aukerarik gabe ere. Baldintza hauek euren gurasoak bisitatzeko eskubidea oztopatzen dute, era egokian atseden hartzea ekiditen dute eta euren biziak arriskuan jartzen dituzte horren desplazamendu luzeak egin behar izaterakoan.

Entre quienes más sufren esta situación, junto con las personas enfermas o de edad avanzada, se encuentran las y los menores de edad que deben afrontar miles de kilómetros de viaje en un fin de semana para visitar a algunos de sus progenitores o a ambos, tras una dura semana escolar, sin ocasión de descansar antes de afrontar la siguiente. Estas condiciones dificultan el derecho a visitar a sus padres y madres, impiden que descanse adecuadamente y pone en riesgo sus vidas al tener que efectuar tan largos desplazamientos.

Urruntze eta sakabanaketa politika honek zentzurik ez bazuen eta eragiten dien presoen errotzean lagundu ez badu –kontrakoa baizik, hurbileko eta senideak zigortu ditu -, ETAren erabateko etetearen osteko aro berri honetan ez du inolako zentzurik denboran luzatzea.

Si esta política de alejamiento y dispersión nunca tuvo sentido ni ha favorecido el arraigo social de las personas presas afectadas, sino que únicamente ha castigado a familiares y personas allegadas, tras el nuevo tiempo abierto por el cese definitivo de ETA, no tiene ningún sentido prolongarla por más tiempo.

Honengatik guztiagatik, udalbatzarrak honako akordioa onar dezan eskatzen dugu:

AKORDIOA:

Por todo ello, solicitamos que el pleno adopte el siguiente

ACUERDO

1.- Getxoko udal batzarrak dispertsio politikaren eta urruntzearen desaktibazioa eskatzen du, ez baitu soilik preso dagoen pertsona kaltetzen, baizik eta bere senideak oinaze gehitu batera kondenatzen ditu.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de getxo solicita la desactivación de la política de dispersión y el alejamiento, puesto que no sólo perjudica a la persona presa sino que además, condena a sus familiares a un sufrimiento añadido.

2.-Getxoko udal batzarrak bertako presoen jarraipen bat egiteko

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo se compromete a realizar un

konpromisoa hartzen du, bereziki eta arreta handiagoz adin txikiko seme-alabak dituztenei.

seguimiento hasta que pongan fin a la dispersión de presas y presos originarios de este municipio, en particular y con mayor diligencia, aquellos y aquellas con hijas e hijos menores de edad.

3.-Honako akordioa Espainiako zein Frantziako gobernuei jakinaraziko zaie.

3.- El presente acuerdo se notificará tanto al gobierno español como al gobierno francés.

Koldo Iturbek aipatu duenez, mozio honetan abstenitu egingo dira sakabanaketaren aurka daudela adieraziz, espetxeen legerian xedatukoa ez baitu betetzen eta, gainera, familiei era negatiboan eragiten die. Gizatasun printzipioagatik Espainiako Gobernuari eskatzen dio presoak gerturatzeko eta espetxe politikak aitortzen dizkien eskubideak errespetatzeko politika antola dezala.

Koldo Iturbe indica que en esta moción se abstendrán manifestando que están en contra de la dispersión ya que no cumple lo dispuesto en la legislación penitenciaria y además afecta negativamente a las familias. Por principio de humanidad pide al gobierno español que articule la política de acercamiento de los presos y respeto a los derechos que la política penitenciaria les reconoce.

Susana de Cosek dio EH Bilduk bi mozio argudio berarekin proposatu dituela. PPren iritziz, hau ez da neurri horiek baloratzeko toki egokia. Gogorarazten du presoek beren zigorrak egindako delituengatik betetzen dituztela, eta zigor horiek presoen gizarteratzea lortzeko bideratzen direla errotze sozialari eusteari baino. Sakabanaketaren helburua, halaber, ETAk bere presoekiko kontrola ez izatea da eta, hari esker, talde terrorista horretako kide batzuk bertatik ateratzea lortu dute. Ez du zalantzan jartzen preso politikoen familiek sufritzen dutenik, normaltzat jotzen du haien artean dauden familia loturengatik, baina minari buruz PPk asko dakiela; hainbatek sufrimendu handia jasan dute beren ondokoak, gurasoak edo anai-arrebak hiltzen ikusi dutelako ETAren eskutik, eta haiek guztiak aipatu ere egingo ez duen toki batean bakarrik bisita ditzaketela. Amaitzeko,

Susana de Cos indica que desde EH Bildu se plantean dos mociones con el mismo argumento. El PP cree que este no es el lugar para valorar dichas medidas. Recuerda que los presos cumplen penas por delinquir y tras haber sido juzgados y que las penas están encaminadas a la reinserción de los presos más que a mantener el arraigo social. La dispersión también trata de evitar el control de ETA a sus miembros presos y que gracias a ella se ha conseguido que algunos miembros de la banda se hayan desvinculado de la misma. No duda que las familias de los presos políticos soportan sufrimiento, que reconoce como normales por los vínculos famialiares, pero que sobre el dolor el PP sabe mucho por el sufrimiento que han tenido muchos al ver morir a sus desdencientes o padres o hermanos asesinados por ETA y a los que sólo les pueden visitar en un lugar que no va a nombrar. Finaliza indicando que aún

ETA desegiten dela eta armak entregatu dituela dioen komunikatua ez duela oraindik entzun esan du.

no ha oído el comunicado de disolución de ETA y de entrega de las armas.

Santiago Sainzek beti gai bera aurkezten dela adierazi du, eta ETA ez dela desegin eta ez dituela armak entregatu gogorarazi du. Ez zaio egokia iruditzen presoen familien sufrimenduaz hitz egitea eta ETAren biktimen familiei buruz ezer esatea. ETAk, esan du, bere borroka harmatua, Estatuaren aurka zeramana galdua du, eta oraingo honetan kontaeraren borrokan irabazi nahi du; hala ere, gizarte demokratikoak, gurea den bezalakoak, ez dauka hementxe bertan amore ematerik. Hargatik bada mozio honi ezezko botua emango diogu.

Santiago Sainz manifiesta que siempre se presenta el mismo tema y recuerda que aún ETA ni se ha disuelto ni ha entregado las armas. Hablar del sufrimiento de las familias de los presos pero no indicar nada de las familias de las victimas de ETA, no le parece presentable. Indica que ETA perdió su lucha armada contra el estado y ahora quiere ganar la batalla del relato pero es aquí donde una sociedad democrática como la nuestra no puede flaquear. Por ello votaremos en contra de esta moción.

Enrique Pradak dio sakabanaketak pertsonen eskubideak eta familienak urratzen dituela: Osoko bilkura askotan entzun duten gaia da hau, eta ez dute uste mozioak direnik gai hori jorratzeko formatu egokia; beste era batera aztertu behar da, eta balioen hezkuntzan, bizkidetzan, elkarrizketa eta abarretan oinarrituz. GUK taldeak guztien giza eskubideak babesten ditu, eta akordioak bilatu behar direla uste du eta ez norberak bere iritziari eusteko bakarrik balio duten mozioak. Aipatutako guztiagatik, abstenitu egingo dira.

Enrique Prada manifiesta que la dispersión vulnera los derechos de las personas y también de las familias: Llevan varios plenos escuchando esta cuestión y no creen que las mociones sea el formato idóneo para tratar este tema que debe ser tratado de otra manera y basado en educación de valores, convivencia, diálogo, etc. GUK defiende los derechos humanos de todos y cree que hay que buscar acuerdos y no mociones que sólo sirven para que cada uno se ratifique en su opinión. Por todo lo indicado se abstendrán.

Teresa Escalantek lehenik eta behin esan du ezker abertzaleari kontuak eskatu beharko zitzaizkiola indarkeria politikoki babestu izanagatik, eta erabaki judizialak ez dituztela eztabaidatuko.

Teresa Escalante indica que en primer lugar habría que pedir cuentas a la izquierda abertzale por su apoyo político a la violencia y no van a entrar a discutir decisiones judiciales.

Maite Arraizak dio EH Bilduk pertsonen eta presoen eskubideak defendatzen jarraituko duela, eta ez direla ahaleginduko ere familiei eta bereziki kaltetutako adingabeei

Maite Arraiza manifiesta que EH Bildu no se va a cansar de defender los derechos de las personas y también de los presos ni tampoco de tratar de evitar el sufrimiento añadido a las

eragindako sufrimendua ekiditen. Presoei irtenbide politiko bat ere eman behar zaiela uste du. Beste pertsona batzuen mina ez dute zalantzan jartzen, baina hori ez da presoen eta haien familien eskubideak errespetatzeko traba.

familias y sobre todo a los menores afectados. Cree que hay que dar también una solución política a los presos. No ponen en duda el dolor de otras personas pero ello no obsta para que se respeten los derechos de los presos y sus familias.

Mozioa bozkatu ostean, ez da onartu, aldeko 4 boto (EH Bildu), aurkako 8 (PP, PSE-EE) eta 13 abstentzio (EAJ-PNV, GUK) jaso baititu.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 8 votos en contra, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 13 abstenciones, PNV, GUK.

**138.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ROMO-AREETAN HERRI-GALDEKETA EGITEAREN ALDE.**

**138.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/EN PRO DE CONSULTA POPULAR A CELEBRAR EN ROMO-LAS ARENAS.**

Oier Iturralde jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

Oier Iturralde da lectura a la siguiente moción:

Romoko Nagusien Etxeko leku aldatzearen harira auzoan sortu den ezinegona ezkutaezina da. Badira hilabeteak Romoko auzokideak antolatzen hasi zirela trasladorik egon ez dadin. Ordutik hona hamaika ekimen burutu izan dituzte eta bolo-bolo dabilen gaia da Nagusien Etxearena. Tamalez, auzoan sortzen ari den tentsioa gero eta handiagoa da eta horren lekuko izaten ari da Nagusien Etxeko Zuzendaritza Kontseilua. Azken Kontseiluan eztabaida dialektikoa berotzen hasi zenean bertan parte hartzen duen udal langile bat Kontseiluko kide batengana modu onartezinean zuzendu egin zen, hura mehatxatuz. Gertakari horiek kide honen salaketa poliziala eragin dute eta zoritxarrez jazotakoak auzokideen haserrea areagotu egin du.

El traslado de la Nagusien Etxea de Romo ha causado un gran revuelo en el barrio, sin duda. Ya hace algunos meses que los/as vecinos/as de Romo han empezado a organizarse para que el citado traslado no se produzca. Desde entonces han realizado muchas iniciativas, y el tema de la Nagusien Etxea está en boca de todo el vecindario. Desgraciadamente, la tensión que se ha creado en el barrio va en aumento, y el Consejo de Dirección de la Nagusien Etxea está siendo testigo de todo ello. Durante la última reunión de dicho órgano, cuando la discusión dialéctica cobró un tono más tenso, un/a trabajador/a del consistorio se dirigió hacia un/a miembro del Consejo de una manera inadmisible, lanzando amenazas. A consecuencia de ese episodio, la citada persona ha presentado una denuncia policial, y desgraciadamente todo lo ocurrido ha alimentado el enfado de los/as

vecinos/as.

Gai honek Romo-Areetan sortu duen opostzioa ikusita eztabaida eta herritarren parte-hartzea sustatzea talde politiko guztien zeregina da. Horregatik, EH Bilduk honako proposamena egiten du gaia desblokeatu eta adostasun handienarekin erabaki bat hartzeko: Romo-Areetan galdeketa egitea.

Viendo la oposición que este tema ha generado en Romo-Las Arenas, impulsar la participación de todos/as los/as vecinos/as es tarea de todos los grupos políticos. Por eso, EH Bildu propone lo siguiente en aras de desbloquear la situación y tomar una decisión con el mayor consenso posible: realizar una consulta en Romo-Las Arenas.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak bere 81. artikuluan Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak burutzeko aukera aurreikusi egiten du bere 3. atalean.

El artículo 81 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, prevé la opción de realizar consultas sectoriales o de ámbito territorial limitado en su apartado número tres.

Gure ustez, Romo-Areetako auzokide orori dagokio gai honen inguruan duen iritzia azaltzea bi arrazoi nagusiengatik. Batetik, oraindik jubilatu ez direnak etorkizun hurbilean Nagusien Etxeko erabiltzaile izan daitezkeelako, eta bestetik, Nagusien Etxea kokatua dagoen eraikin multzoa historikoa delako. Beraz, bi erabaki nagusi dira gure ustez hartu behar direnak:

En nuestra opinión, corresponde a todos/as los/as vecinos/as de Romo-Las Arenas expresar su opinión sobre este tema por dos razones: por un lado, las personas que aún no se han jubilado pueden ver que en un futuro cercano serán usuarios/as de la Nagusien Etxea; por otro lado, el conjunto de edificios donde se localiza la Nagusien Etxea es de carácter histórico. Por tanto, son dos las decisiones que han de tomarse:

1- Nagusien Etxea Kultur Etxe berrira leku aldatzea edo dagokion tokian mantentzea.
2- Nagusien Etxea egun kokatua dagoen eraikin multzoari dagokion babesa eman eta mantentzea, edota hura eraistea.

1.-Trasladar la Nagusien Etxea a la nueva Casa de Cultura o mantenerlo en su emplazamiento actual.
2- Dotar al conjunto de edificios donde actualmente se localiza la Nagusien Etxea de la protección que lo corresponde y mantenerlo, o derribarlo.

EH Bilduren asmoa gai hau maiatzaren 18ko Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboan eztabaidatzea zen. Gaiari buruzko eskumena duen batzordean afera seriotasunez landu nahi genuen eta akordioa lortu gainerako talde

El propósito de EH Bildu era discutir este tema en la reunión del 18 de mayo de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales. Nuestra intención era trabajar este tema con seriedad en la comisión que ostenta la competencia sobre el tema, y buscar

politikoekin. Ariketa demokratikoa mahai jainean jarri eta parte-hartze filosofia muturrera eraman nahi genuen, hitzetatik ekintzetara igaroz. Zoritxarrez baina, hau ez zen posiblea izan EAJ, PSE-EE eta PPk haien bozkak batu zituztelako proposamenaren eztabaida eragozteko. Horregatik guztiagatik mozio hau aurkeztu baino beste biderik ez dugu izan herri partaidetza slogan izateari utzi eta errealitate bihurtzeko.

acuerdo con los demás grupos políticos. Queríamos poner sobre la mesa el ejercicio democrático y llevar la filosofía de la participación hasta su último extremo, pasando de las palabras a la acción. Sin embargo, no ha sido posible cumplir con nuestro propósito, ya que los grupos PNV, PSE-EE y PP han unido sus votos para impedir que se debatiera nuestra propuesta. Por todo ello, no hemos tenido otra opción que presentar esta moción, para que la participación ciudadana deje de ser un eslogan y pase a ser realidad.

Aurreko guztiagatik, Getxoko udalbatzari honako akordio proposamena luzatu nahi diogu:

Por todo lo anteriormente explicado, queremos plantear la siguiente propuesta de acuerdo ante el Pleno de Getxo:

BAKARRA.- Getxoko Udalak mozio honen azalpenean adierazitako terminoetan Romo- Areetan galdeketa egin ahal izateko beharrezko tramiteak hasiko ditu Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordean.

ÚNICO.- El Ayuntamiento de Getxo comenzará los trámites necesarios para poder realizar la consulta popular en Romo- Las Arenas en los términos expresados en la parte expositiva de esta moción, dentro de la Comisión de Presidencia y Servicios Sociales.

Eduardo Andradek adierazi du mozioa dela, horretarako prestatuta egon gabe, goi mailako politikan aritzen direnen adibide bat. Aurrekontuak apirilean onartu ziren eta, orduan, PPk salatu zuen haiek ez zutela barnean hartzen galdeketarik, orain eskatzen den moduan. EH Bilduk eta Ciudadanosek aurrekontuak onartu zituzten galdeketa proposatu gabe. EH Bilduk iruzur egin zien Nagusien Etxearen erabiltzaileei haiekin egindako bileran aurrekontuak negoziatzen ari zela ez esatean. Aurrekontu horiek barnean hartzen zuten partaidetzazko prozesu bat Getxoko Bentako lokalari buruz, baina ez zen sartu ezer Romoko Nagusien Etxea lekuz aldatzeari buruz partaidetzazko prozesuekin lotuta;

Eduardo Andrade indica que la moción es un ejemplo de quienes juegan a política con mayúsculas y no están preparados para ello. En abril se aprobaron los presupuestos y entonces el PP denunció que en los mismos no se incluía una consulta como ahora se solicita. EH Bildu y Ciudadanos apoyaron los presupuestos sin plantear la consulta. EH Bildu engañó a los usuarios del Nagusien Etxea cuando en la reunión que estuvieron no les dijo que estaban negociando los presupuestos dónde sí se incorporaba un proceso participativo sobre el local de la Venta de Getxo, pero no se incorporó nada respecto al traslado de la Nagusien Etxea de Romo en relación a procesos participativos, aunque sí se

aldiz, sartuta zegoen partida bat erabiltzaileei Romoko Nagusien Etxeko babespeko apartamentuetatik irtenarazteko. Mozioa barregarria da eta Nagusien Etxeko erabiltzaileen aurrean irudia garbitzeko helburua du, besterik ez; gainera, GUK taldeak aurkeztutako bat errepikatzen du. Gogora ekartzen du PPk zuzenketa batzuk aurkeztu zituela Nagusien Etxeari buruzko galdeketa eta haren berrikuntza ahalbidetzeko, eta EH Bilduk kontrako botoa eman zuela. Esan du Nagusien Etxearen erabiltzaileek beraiek erabaki nahi dutela, eta ez Romoko eta Areetako auzoek egitea. Eraisketari dagokionez, gobernuko taldeak esan zuen udalbatzarrean erabakiko dela, hirigintzako erabileretan eragina duelako. EH Bilduri gogorarazi dio, gobernuko taldea Getxo Antzokirako dirurik gabe geratu zenean, EH Bilduren laguntza lortu zuela, Nagusien Etxeaz ahaztuz; hori guztia, Errekaganeko pabiloiak ziurtatzeko.

incorporaba una partida para desalojar a los usuarios de los apartamentos tutelados de la Nagusien Etxea de Romo. La moción es rídicula y sólo tiene como objeto lavarse la cara ante los usuarios de la Nagusien Etxea además de ser reiterativa con una que presentó GUK. Recuerda que el PP presentó unas enmiendas para posibilitar la consulta y la reforma de la Nagusien Etxea y que EH Bildu votó en contra. Indica que los usuarios de la Nagusien Etxea quieren decidir ellos y no todo el barrio de Romo y Las Arenas. Respecto al derribo, ya dijo el equipo de gobierno que se decidirá en pleno porque afecta a usos urbanísticos. Recuerda a EH Bildu que cuando el equipo de gobierno se quedó sin dinero para el Getxo Antzokia logró el apoyo de EH Bildu olvidándose de la Nagusien Etxea, todo ello, para asegurarse los pabellones de Errekagane.

Enrique Pradak adierazi du GUKek 2015eko uztailean eta 2016ko urtarrilean antzeko mozioak aurkeztu zituela. Gogora ekarri du GUK herritarren benetako parte hartzea sustatzeko sortu dela, ez lau urtetik behingoa. Errepikatu du partaidetza-politikak aldatu ez izanaren errua EH Bildurena dela. Uste du, adinekoei zor zaien errespetuagatik, Nagusien Etxearen erabiltzaileei galdetu behar zaiela. Bere iritziz, EH Bilduk mozioa aurkeztu du, aurrekontua onartu ondoren, geratu den irudia gustatzen ez zaiolako. EH Bilduk aukera izan zuen negoziatu zuenean eta, beraz, ez dute ulertzen gobernuko taldearekiko jokatzen duen oxigeno papera, bai Getxo Antzokian, bai eta aurrekontuetan ere. Mozioak erakusten du EH Bilduk aurrekontuetarako

Enrique Prada indica que GUK en julio de 2015 y enero de 2016 ha presentado mociones similares. Recuerda que GUK ha nacido para impulsar la participación ciudadana real, no cada cuatro años. Iniste en que EH Bildu es responsable de que no cambiaran las políticas participativas. Cree que por respeto a los mayores hay que preguntar a los usuarios de la Nagusien Etxea. Opina que la moción de EH Bildu se debe a que la foto que ha quedado tras la aprobación del presupuesto no ha gustado y cree que EH Bildu tuvo la oportunidad cuando negoció y no entienden el papel de balón de oxigeno que juega respecto al equipo de gobierno, tanto en el Getxo Antzokia, como en los presupuestos y la moción refleja que el acuerdo de EH Bildu por los presupuestos fue un gran

hitzartutako akordioa iruzur handi bat izan zela, eta ausardia eskatu die taldeei mozioa babesteko eta adinekoei Nagusien Etxearen etorkizunean parte hartzeko aukera emateko.

fraude y piden a los grupos valentía para apoyar la moción y posibilitar la participación de los mayores en el futuro de la Nagusien Etxea.

Santiago Sainzek adierazi dio PPri Ciudadanos abstenitu egin zela aurrekontuetan, baina bere botoa ez zela erabakigarria; eta aldiz, aurreko legealdian PPrenak erabakigarriak izan ziren, ez zutela gai honen inguruan ezer egin. Gogora ekarri du GUKek Nagusien Etxeari buruzko galdeketa eskatzeko aurkeztu zuen mozioa babestu egin zuela Ciudadanosek eta PPk, aldiz, ez; eta gainera, Ciudadanosek Romoko monumentu ondareari buruzko mozio bat ere babestu zuela.

Santiago Sainz indica al PP que Ciudadanos se abstuvo en los presupuestos sin que su voto fuera determinante no así como los del PP que han sido determinantes durante toda la pasada legislatura y no han hecho nada al respecto. Recuerda que la moción de GUK pidiendo una consulta sobre la Nagusien Etxea Ciudadanos la apoyó y el PP no y que también Ciudadanos apoyó una moción sobre el patrimonio monumental de Romo.

Teresa Escalantek esan du Getxon hiru talde politiko borrokan ari direla populismoaren titulartasuna eskuratzeko. Adierazi du talde sozialista eztabaida askotan egon dela eta gai honi buruzko mozio gehien aurkeztu dituztenak direla. Gogora ekarri du azken hauteskundeetan EAJ, boto gehien lortu dituen alderdiak, Nagusien Etxearen proiektu zehatza aurkeztu zuela eta kritikatu egin du talde batzuek herritarren borondatearen ordez beraiena jarri nahi izatea.

Teresa Escalante indica que hay tres grupos políticos luchando por la titularidad del populismo en Getxo. Indica que el grupo socialista ha estado presente en muchos debates y son los que más mociones han presentado sobre esta cuestión. Recuerda que en las últimas elecciones el PNV, que ha sido el más votado, presentó el proyecto concreto de la Nagusien Etxea y critica que algunos grupos quieran sustituir la voluntad ciudadana por la suya propia.

Koldo Iturbek adierazi du mozioak Romoko eta Areetako herritarrei galdeketa bat egitea planteatzen duela, eta ez Nagusien Etxearen erabiltzaile edo bazkideei. Esan du EAJ alderdi serioa dela eta duela urte batzuk antzeman zuela ekipamendu baten beharra esparru horretan, eta horregatik, bere hauteskunde-programan sartu zuela; eta bera izan zen boto gehien lortu zituen alderdia. Kritikatu egin du beren hauteskunde

Koldo Iturbe indica que la moción plantea una consulta a los vecinos de Romo y Las Arenas y no a los usuarios o socios de la Nagusien Etxea. Manifiesta que el PNV es un partido serio y detectó hace años la necesidad de un equipamiento en ese ámbito y por ello se incluyó en su programa electoral, siendo el partido más votado. Critica que no tengan en sus programas electorales propuestas concretas al respecto. La decisión del PNV se ha tramitado en un proceso participativo y

